

Jendaurrean Erabili Praktika Komunitatea, euskarazko komunikazio publikoari eraginez

Eduardo Apodaka

EHU/UPVko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
eduardo.apodaka@ehu.es

Uxo Anduaga

Soziolinguistika Klusterra
u.anduaga@soziolinguistika.es

Idurre Eskisabel

EHU/UPVko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea, Kazetaritza Saila
idurre.eskisabel@gmail.com

Pablo Suberbiola

Soziolinguistika Klusterra
p.suberbiola@soziolinguistika.es

Sarrera-data: 2017-04-03 | Onartze-data: 2017-04-28

Laburpena. Artikulu honetan Jendaurrean Erabili proiektua aurkeztuko dugu. Proiektua Soziolinguistika Klusterraren eta EHUko ikerketa talde baten arteko lankidetzaren fruitu izan da. Hainbat eragilek hartu dute parte (EHU, Gipuzkoako Aldundia, Athletic, EITB, Guggenheim Museoa, Getxoko Udala, ELA sindikatua, Adeg, AEK). Helburua euskarazko komunikazio publikoan aritzen direnen Praktika Komunitate bat osatzea izan da, haren bidez jendaurreko komunikazioan euskararen erabilera hobetzeko asmoz. Artikuluan proiektuaren hasierako egitasmoa aurkezteaz gain, lehen fasean egindakoak azalduko dira. Proiektuaren jardunean, alde handiaren behintzat, euskaraz era normalizatu batean komunikatzeko, komunikazio esparru publikoan dauden egiturazko eragozpenak eta erresistentziak zehaztu badira ere, horiek gainditzeko eragileek lortu duten egiten-jakitea identifikatu eta partekatu da. • **Hitz gakoak:** *praktika komunitatea, komunikazio-praktika, euskarazko jendaurreko komunikazioa.*

Abstract. This paper presents the project entitled Jendaurrean Erabili (Use in Front of an Audience), which is the result of a collaboration between the Sociolinguistic Cluster and a research team at the University of the Basque Country, with the participation of a number of different stakeholders (the University of the Basque Country, the Gipuzkoa Provincial Council, Athletic Football Club, EITB, the Guggenheim Museum, the Getxo Local Council, the trade union ELA, Adeg and AEK). The aim was to establish a Practice Community made up of people who often have to talk in Basque in public, in order to improve the way in which the language is used when spoken in front of an audience. In addition to explaining in greater detail the initial aim of the project, the paper also describes what has been achieved during its first phase. During the course of the project, the structural obstacles and resistance found in the public sphere to communicating freely and naturally in Basque were, to a large extent, identified, and the know-how developed by speakers to overcome these impediments was described and shared. • **Key words:** *Practice community, communication practice, communication in Basque in front of an audience.*

EUSKARAZKO JENDAURREKO KOMUNIKAZIORAKO PRAKTIKA KOMUNITATE BAT

I Artikulu honetan *Jendaurrean Erabili* proiektua aurkeztuko dugu, zehazkiago proiektuaren lehendabiziko fasean egindako ibilbidea. Funtsean, proiektuaren eginkizun nagusia euskarazko komunikazio publikoan aritzen diren eragileen *praktika komunitatea* eratzea eta abiaraztea izan da. Proiektuaren sustraia *EraLan* izeneko proiektu sortan topatzen da¹. Eralan³ (2015) proiektuaren baitan *Prentsaurrekoak eta jendaurreko ekitaldiak* gogotagai izan zituen talde bat osatu zen. Talde hark 2012an eta 2013an lantutakotik sortu zen euskararen jendaurreko erabilera modu zabalago batean aztertze eta lantze asmoa. Ildo horri ekiteko, Eduardo Apodaka eta Jordi Morales ikerlari² praktika komunitate bat eratzeko eta abiarazteko ikerketa- eta ekintza-proiektu modular bat prestatu zuten.

Esan bezala, proiektuaren helburuak jendaurrean *euskararen erabilpena sustatzea eta areagotzea* izan behar zuten. Baina halako helburua zeharka eta eragileen konpromiso zein jardunetatik heldu behar delakoan, eta ikusita euskaraz (ere) komunikatzen duten eragileek esperientzia eta jakintza nahikoa dutela jardun hartaz, elkarrengandik ikasteko eta sinergiak sortzeko praktika komunitate bat egitearen aukera hobetsi zen. Komunitatea, berez, metodologia bat da jendaurreko erabilpenean eta erabilpen haren sustatze-egitasmoetan egon daitezkeen oztopoak edota arazoak gainditzeko; parekideen arteko jakintza-trukerako eta komunikaziorako gunea eta egokiera eskainiz.³

Hortaz, praktika komunitatearen ardatza erakunde publikoek eta pribatuek jendaurrean euskara erabiliz landu, ikasi eta lortu duten jakintza da. Proiektuak, neurri handi batean, komunitate hori nola eta zertarako sortu izan du ardatz. Halaber komunitatearen funtzionamendua eta eginkizunak zein izan daitezkeen zehazten saiatu gara eta aldi berean komunitatea txikitik (Talde Nuklear batetik) abian jartzen ahalegindu gara.

Horrez gain, ikerketari dagokionez diagnostiko moduko lanak egin dira, *euskaraz jendaurrean erabiltzeari* buruzko ezagutza eta jakintza praktikokoari lotutakoa hain zuzen (nola egin jardun hori, nola gainditu trabak, zer baliatu, nola hobetu, nola sustatu...).

1.1 Elkarrekin eta elkarrengandik ikasiz, testuingurua eraldatu

Proiektuaren marko orokorra *Ikerketa Ekintza Parte Hartzailea* deritzon paradigma izan da (*Participatory Action-Research*, IEP). IEPk ikertuaren

**Komunitatea,
berez,
metodologia bat
da jendaurreko
erabilpenean eta
erabilpen haren
sustatze-
egitasmoetan
egon daitezkeen
oztopoak edota
arazoak
gainditzeko;
parekideen
arteko jakintza-
trukerako eta
komunikaziorako
gunea eta
egokiera
eskainiz.**

Ikaskuntza kolektiborako tresna bat eskaintzea izan da proiektuaren helburu nagusia. Alegia, elkarrengandik ikasiz, eta jakintza berria sortuz, nor bere jarduna hobetzeko eta hala ingurua eraldatzeko bide eskaini behar duen tresna bat.

parte-hartze aktiboa bilatzen duen ikerketa-metodoa da (Fals Borda eta Brandao, 1986). Askotariko teknikak erabiliz, ikerketaren gaia diren pertsonen ikerketa beraiek egiteko eta horrela euren errealitatea aldatzeko eskubidea aitortzen die. Askotan horretarako diseinatzen da berariaz: alegia, jendeak bere errealitatea asmo jakin baten arabera alda dezan. Gehienetan ikerketaren faseetan (diseinuan, ekintzetan, balorazioetan...) kontrola ematen zaio ikertuari, baina ikerlari adituaren zeregina baztertu gabe. Gure kasuan, ikerketa-taldetik eskaini nahi izan zaie eragileei euren jardunean lagungarri izan zitekeen tresna bat, eta ahal izan den neurrian, tresna haiekin diseinatu eta antolatu nahi izan dugu. Ikerlarien eginkizuna, gehienbat, “zerbitzari metodologikoa” izan da (Villasante, 2006).

Bestalde, paradigma hau egokia da ezagutza kritiko, erreflexibo, eraldatzaile eta partekatua sortzeko. Hortaz, egokia da ezagutzaz gain, aldaketak eta berrikuntzak eragin nahi dituzten proiektuentzat (Moreno eta Espadas, 2002). Agerikoa denez, praktika berri edo gutxitu baten hedapenaz eta hobekuntzaz aritu gara (eta horregatik, berrikuntza sozial eta kulturalaz).

Horrenbestez, ikerketa ekintza parte-hartzaileetan ohi den bezala, ikaskuntza kolektiborako proiektu bat abiarazi dugu, ikaskuntza edo ikerkuntza *jakintza* eta *egiten-jakite* zenbait sortzeko prozesua den aldetik. Harekin batera, jakina, *egiten-jakite* horren eragilea edo subjektua sortzeko apustua egin dugu: idealean, ez ikerketak, ez “kanpo-ikerlariek” ez dute *jakintza* hura sortu behar, bere burua ikertuz ikerkuntzan bertan sortzen den *eragileak* baizik. Eskema sinple batean esan ohi da ikerketa bide hauek ekintza-gogoeta-ekintza kiribila sortu behar dutela, betiere, talde abiarazleaz harago doan kiribil moduko mugimendu hazkor eta harkor batean (Villasante, Montañes eta Martí, 2002). Ekintza gogoetatik eta gogoeta ekintzatik sortu behar direnez gero, ezin da guztiz lineala eta kausa-efektu lotura itxi batez ikerketa-ekintzaren diseinua eta gauzapena egin. Horregatik ere, ikerketa-ekintza honek lortu eta sortu duen ezagutzak hiru ezaugarri ditu nagusiki: *dialogikoa*, ahots asko bilduko ditu, *performatzailea*, interbentzioaren bitartez nahita eta xede jakinez efektuak eragiteko asmoa du, *behin-behinekoa* eta *atzera elikatua* (errekurtsiboa), epemuga malgukoa eta aurrera bideetara irekia; egin ahala, egindakoak bide berriak edo abiapuntu berriak zabalduko dizkio; eta atzera hainbat kontu zuzentzeko ikasiko da. Honek denak praktika-komunitatearen berezko izaera behar luke.

Labur bildurik, ikaskuntza kolektiborako tresna bat eskaintzea izan da proiektuaren helburu nagusia. Alegia, elkarrengandik ikasiz, eta jakintza berria sortuz, nor bere jarduna hobetzeko eta hala ingurua eraldatzeko

bide eskaini behar duen tresna bat. Tresna hura, jakina, praktika komunitatea da. Baina, ezagutza edo *egiten-jakite* bat bainoago, ikerketa-ekin-tzak sorrarazi nahi izan du sarean ikasi, bere burua ahaldu eta bere jarduna, eta ondorioz errealitatea ere, eraldatuko duen komunitate ireki eta erreferentzial bat.

1.2 Praktika Komunitatea: bitartekoa eta helburua

2015eko urrian abiarazi genuen *Jendaurrean Erabili* egitasmoaren praktika komunitatea, edo zehatzago esan, komunitate horren hazia izan behar zuen talde nuklearra. Bederatzi eragilek hartu dute parte talde horretan: Adeg, AEK, Athletic Club Bilbao, EITB, ELA, Getxoko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, Guggenheim Bilbao Museoa, eta UPV/EHU.⁴

2015eko azarotik 2016ko ekainera arte, talde nuklear horrekin egin dugu praktika komunitatea egituratzeko eta osatzeko lehen fasea, hartarako hainbat lan eta eginkizun eginez. Esan daiteke *Jendaurrean Erabili* izeneko praktika komunitateak nolakoa izan behar zuen erabakitze saiakerak eta probak egiten ditugula talde horren saio eta jardunetan. Hori dena azalduko dugu, baina lehenago, praktika komunitatea bera zer den esplikatu behar dugu.

Funtsean, praktika komunitatea jakintza gestionatzeko metodo bat da. Kontzeptua Xerox enpresaren PARC (*Palo Alto Research Center*) delakoan sortu zen, fotokopiagailuak konpontzen ziharduten teknikarien inguruan egindako ikerketa baten baitan (Brown eta Duguid, 1991; Lave eta Wenger, 1991). Gutxi asko, ikerketa horrek agerian utzi zuen teknikari horiek euren arteko harreman informaletan elkarrengandik ikasi eta elkarri irakasten ziotela, hau da, ezagutza eta jakintza ari zirela bai sortzen, bai trukutzen, eta hori dena euren praktika (lan-praktika teknikoa) jakingai zutela. Ikerketak, beraz, lan-munduan eta ikaskuntza-prozesu guztietan oso agerikoa den zerbait erakutsi zuen: jauzi handiegia dagoela eguneroko *egiten jakite (praktiko)tik* eskuliburuetan edota ikaskuntza eta prestakuntza formaleko saioetan lantzen denera.

Ikerketa haren ondotik, E. Wengerrek (1998a) zehaztu zuen Praktika Komunitateen Teoria. Horren arabera, arazoen konponbideak harreman informaletan sortzen dira eta haietan partekatzen eta hedatzen dira. Ideia horietan oinarrituta, Wengerrek ikaskuntza kokatuaren teoria aurkeztu zuen. Ikaskuntza praktiken bidez egin beharreko prozesua da, eta praktketan arizaleek ezinbestez ikasten dute, betiere zehaztopen hauekin:

Harreman sare horietan, beraz, agerian jartzen da ezagutzaren partekatze eta trukatzeko informala, eta nola handitzen eta berritzen den prozesu horietan, horrez gain, aditu eta ez-aditu artean konfiantza giroa sortzen dute eta horrela ere identitate-sentimendu bat jaio liteke.


- Ikaskuntza *fenomeno soziala* da. Praktika berririk ikasteko besteen beharra dugu, elkarrekintzan ikasten da usu, baina, oro har, praktika jakin bat praktikatzeko dutenen komunitatean sartuz, parte hartuz eta hango moduetan trebatuz ikasten dugu.
- Ikaskuntza egoera jakin batean *kokatutako praktika* da, maiz, arazo zehatzei loturik, ez da praktikarik landa egiten den gogoeta edo hausnarketa, egoeran bertan esku hartuz ikasi ohi da.
- Ezagutzan beti izaten dira alderdi esplizitua (diskurtsiboa) eta inplizitua (praktiko hutsa); hau da, azaltzen dakiguna eta egiten dakiguna ez dira bat etortzen eta azkena aurrea baino handiago izan ohi da.

Horrenbestez, *praktika-komunitatea* praktika komun baten inguruan ehuntzen den sarea trinkotzea da. Berez sortzen omen dira praktika berean ari direnek elkartzeko aukera dutenean, oso helburu zehatzak eduki ohi dituzte (arazoak konpontzeko amarruak, konponbide berezi edo berriak, eta abar) baina horiekin batera parekoen arteko harremanak ere josten eta indartzen dira. Halaber, praktika komunak dituztenen arteko harremanetan berrikuntza, aurreikuspena eta gogoeta prospektiboa landu daitezke (Wenger, 1998a; Wenger, 1998b; Wenger eta Snyder, 2000). Harreman sare horietan, beraz, agerian jartzen da ezagutzaren partekatze eta trukatzeko informala, eta nola handitzen eta berritzen den prozesu horietan, horrez gain, aditu eta ez-aditu artean konfiantza giroa sortzen dute eta horrela ere identitate-sentimendu bat jaio liteke.⁵

Bestalde, praktika komunitateetan geruzak edo parte-hartze mailak egon ohi dira. Komunitate trinkoetan erdiguneko nukleoarekin batera bazterreko geruzak egoten dira, alegia, aritzaile trebatuek (*practitioners*) parte-hartze handiko nukleo bat osatzen dute eta inguruko periferian parte-hartze gutxi duten hasiberriak egoten dira. Ikerlariak guztiz legítimo eta onuragarritzat jotzen dute periferiaren parte-hartze txiki hori (Lave eta Wenger, 1991), batetik kanpotik erdigunera doan ikaste-bidaiaren hasiera izan daitekeelako, eta bestetik jakintza tasa handitzen dutelako. Honela, bada, hiru maila topatuko ditugu praktika-komunitateetan: (1) *Erdiguneko nukleoko parte hartzaile engeiatuak*, parte-hartze handiko kideak, bizi-arazleak eta sustatzaileak; (2) *nukleo inguruko aritzaileak*, nukleotik proposatzen diren ekitaldi eta ekimenetan parte hartzen duten kideak; eta (3) *periferia*, aktiboki parte hartzen ez duten interesatuak, modu pasiboan edo segimendu bat egiten parte hartzen dutenak. Komunitatea *on-line* antolatzen bada, azken geruza handiena izaten da, diferentzia handiz. Gainera, ikerlari batzuek *ikaskuntza-taldea*,

praktika-komunitatea eta praktika-sarea bereizi dituzte (Brown eta Duguid, 2000). Baina ikusienez hirurak txertatu ahal dira modu osagarri batean.⁶


1 irudia: Praktika komunitatearen geruzak



(Egileek egina, Lave&Wengerrren lanean,1991, oinarritua)

Jendaurrean Erabili proiektuan, goiko eredua moldatu dugu eta talde nuklear baten inguruko geruzak gutxitu ditugu (ikusi 2. irudia), honela: komunitateak *talde nuklear* bat izango du (bertan koordinatzaileak eta partaide aktiboenak egongo dira); inguruan noiz edo noiz nukleotik proposatzen diren ekitaldi eta ekimenetan parte hartu lezaketanak eta komunitatean lagun gisa izena emanda dutenak; eta azkenik, segimendu bat egiten parte hartzen dutenak. Komunitatea *on-line* ere antolatuta dagoenez, azken geruza horretatik bada harremanak izateko modurik.

2 irudia: Praktika komunitatearen egokitzapena



(egileek egina)

**Hasieratik bai
helburu nagusia,
bai bitarteko
helburuak ere,
ezagutza
partekatua eta
ezagutza-
komunitate
eragilea sortzeko
pentsatu ziren.
Hartarako,
proiektu bakarra
izan arren,
egitura modular
bat eman genion
ikerketa-
proiektuari.**

Alde horretatik, proposatu dena *praktika komunitate* trinko baten inguruan eraturako sarea izan da. Azken finean, proiektuaren helburua eragite-ahalmena izango duen sarea eraikitzea da. Castells soziologoak (2010) esan duenez, sarea egituratzeak berak sortzen du eragimena. Sare eta komunitateetan partaideen eta jardueren kopurua eta aktibitatea dira eragimen-iturriak, hau da, sare batek izango dituen bizitasunak eta hedapenak emango diote hainbesteko ahalmen eta eskumena. Bestela esan, zenbat eta presentzia gehiago, zenbat eta erreferentzialtasun handiagoa izan, orduan eta eragite-ahalmen handiagoa sortuko da sarean. Erroka, beraz, komunitate hari bizitasuna ematea izango da.

2. LEHEN FASEAREN GARAPENA

I

2.1 Proiektuaren egitura modularra

Hasieratik bai helburu nagusia, bai bitarteko helburuak ere, *ezagutza partekatua* eta *ezagutza-komunitate eragilea* sortzeko pentsatu ziren. Hartarako, proiektu bakarra izan arren, egitura modular bat eman genion ikerketa-proiektuari. Faseka edo zein banaka garatu ahal ziren hiru (azpi) ekite-ildo aurreikusi ziren proiektuaren marko orokorrean, kasu guztietan praktikarekin (hots, euskara jendaurrean erabiltzearekin).

—*Lehenengo ekite-ildoak*: Talde Nuklearra sortzea, prestatzea eta abiaraztea. Talde hau izan da ikerketaren eragile nagusia eta praktika-komunitatearen abiarazlea. Lantalde honek egin ditu praktika komunitatea diseinatzeko, saiatzeko eta abiarazteko aurreikusi ziren atazak: egoeraren ebaluazio-diagnostikoa eta proba-saioak. Taldean profil zehatzeko jendea bildu nahi izan dugu: erakunde publikoetako komunikazio-arduradunak, politikan bozeramaile edota ordezkari jarduten dutenak, enpresa eta elkarte pribatuetako komunikazio-arduradunak edo euskara-teknikariak, eta arlo sozialeko elkarte, fundazio eta mota bereko antolakundeetako komunikazio-arduradunak zein ordezkari edota eledun aritzen direnak. Kasu guztietan ditugu jendaurreko komunikazioan hizkuntza bat edo beste erabiltzen duten eragileak eta gehienetan guztiek dute jendaurrean erakutsi nahi duten aurpegi edo izaera bat definiturik, eta aldi berean hura nori nahi dioten erakutsi ondo zehazturik.

—*Bigarren ekite-ildoak*: ildo honetan hedabideekin lan egitea zen helburua, nolabait esan interpelazioaren bidez lankidetzaz lortzea.⁷ *Asmoa zen* kazetariak eta komunikazio munduko adituak praktika komunitatean integratzea, bereziki jendaurrean euskaraz aritzearen inguruko esperientzia dutenak. Hala ere, hasierako fasean Praktika

Komunitatea osatu eta ibilaraztean jarri behar izan dira indar denak, horregatik erabaki dugu ildo hau egitea baliabideak eta aukerak horretarako egokiak diren unean.

—*Hirugarren ekite-ildoak*: kasu honetan helburua Talde Nuklearretik harago, Praktika Komunitatea eratzea, abian jartzea eta hedatzea da.

Izaera modular horri esker egokitzapenak egin ahal izan dira helburu nagusia kaltetu barik. Horrenbestez, lehendabiziko ekite-ildoan, edo denbora hurrenkerari begira lehen fase batean, aritu gara, sortze eta probatze fase batean, hain zuzen. Gaur egun bigarren fase batean sartu garela esan dezakegu, proba-saioetatik aurrera, praktika komunitatea publiko egin eta egiazko jarduerari ekin diogulako.

2.2 Elkarrir irakasten: lehen fasearen egitekoak

Esan bezala, lehen fasea proba eta zehazte fasea izan da, baina zuzenean ekinez eta jardunez egindako proba garaia. Talde Nuklearra izan da praktikaren bidez praktika komunitatea definitzen eta prestatzen aritu dena. Hartarako, bi eginkizun nagusi izan ditu: prestakuntza-saioak eta diagnostiko lana.

Prestakuntza saioek funtzio bikoitza bete dute. Batetik, erakundeetako ordezkariak tresna kontzeptualak jaso dituzte adituen eskutik, eta bestetik, saio teorikoen ondoren izandako solasaldi eta iritzi-trukeetan hausnartzeko eta norberaren esperientziak kontatzeko aukera izan dugu. Horrela ere, harremanak eta erreferente komunak landu dira. Hitz gutxitan saio horietan Praktika Komunitatea sortu, prestatu eta saiatzeko aurre-saio gisa erabili genituen.

Fase honetan hiru arlo nagusitara laburtu genituen trebatze arloak: (1) komunikazio praktikak oro har, (2) berrikuntza sozialaren legitimazioa, eta (3) komunikazio modu eta teknologia berrien kudeaketa.⁸ Horiek guztiak izan ditugu hizpide eta solasaldi interesgarriak suertatu dira guztietan. Ikus dezagun zer eman zuten solasaldi horiek.

Lehendabiziko solasaldian komunikazio estrategiei eta bitartekoei buruz aritu ginen. Partaide bakoitzak azaldu zuen gutxi asko zein zen bere erakundearen komunikazio jarduna. Berehala agertu ziren gai eta ardura komunak: barne eta kanpo publikoak bereiztearen egokitasuna, komunikazio planen eraginkortasuna, bitartekoak etengabe egokitu eta berritu beharra, eta abar.

Euskarazko komunikazioa gai horien erdian agertu zen etengabe:

- Euskaraz komunikatzeko publikoak zehazteko beharra aipatu zen, baina kanpo-publiko orokor bati begira hori zaila denez kanal eta espazio bereziak zabaltzeko egokitasunaren aldeko eta kontrako argudioak entzun genituen. Horri lotuta, *bitarteko berriek* (sare sozialak eta antzekoak) eskaintzen dituzten abantailak izan genituen hizpide. Baina, hala ere, solaskideen iritziz bitarteko horiek egoki erabiltzeko oraindik asko dago ikasteke.

- Hasieratik bertatik, *komunikazio publikoaren geruzak* eta mailak nola ari diren nahasten egiaztatu ahal izan genuen: harreman publikoak, irudi korporatiboa, barne eta kanpo publikoak, eta hedabideekiko harremanak erruz ari dira aldatzen. Kasu batzuetan, nekez bereizi ahal dira barne eta kanpo publikoak, bestetan komunikazio-jarduna identitate edo irudi korporatiboarekin nahasten da, edo jardun arruntak asko du komunikaziotik.

- Argi geratu zen horretatik guztitik, gaur egun, dena dela komunikazioa, *etengabe komunikatzen* ari direla erakundeak eta horren kontrola oso konplexua eta zaila izaten dela, kasu askotan erakundearen inguruan zarata asko sortzen duelako publikoak berak (*publikoaren alderdi aktibo* hau behin eta berriro agertu zen solasaldietan). Hala, euskaraz egiteko ahaleginak porrot egin ahal dute ez bada zaintzen eta bereizten euskararentzako lekua, aukera, edota presentzia. Hau da, berariazko kontrola, ahalegina edo planifikazioa behar-beharrezkoak dira gaurko egoera linguistikoan. Alde horretatik, bakoitzak erabiltzen dituen taktikak eta amarruak aipatu ziren (euskaraz igortzen diren mezuen edukia berezia izatea, gainbalioa izatea, kanala berezia izatea, forma aldetik bereizgarritasuna ematea...).

- *Komunikazio Planei buruz* ere eztabaida edo iritzia trukea izan genuen. Alde edo kontra egon, kasu guztietan bat etorri ziren planek berez ezer gutxirako balio dutela ez badago haiek egikaritzeko asmo serioa. Aurrekoarekin lotuta, euskaraz komunikatzeko ahalegin berezia egin behar denez, jarrera kontzientea behar-beharrezkoa dela uste zuten gehienek eta “ohiturak aldatzea dakarten praktikak” bultzatu behar direla berariaz. Hori hala edo nola planifikatu edo antolatu behar da.

- Alde horretatik gure ibilbidean sarritan errepikatu den arazo bat agertu zen: maiz, komunikazioa eta euskara arloak bereizita daude erakundeetan eta komunikazioaz ardura dutenek ez dakite euskaraz egiten, edo euskara (eta euskaraz komunikatzea) ez dute euren eginkizuntzat hartzen.

- Azkenik, solasaldian berebiziko garrantzia duen kezka bat agertu zen: sarri, euskaraz komunikatzen (edo erabiltzen) hasten denean,

ohiturak hautsi behar dira, eta hor haustura kolpe bat gertatzen da. Partaideek erabili zituzten hitzak oso esanguratsuak dira: “krak egitea”, “zoro”, “arrotz”, “taliban”... Horri aurre egiteak eskatzen du euskaraz komunikatzeko ahaleginen legitimazio berezia, euskararen erabilera parametro orokor eta positiboetan ezartzea, hain zuzen.

Oro har, lehendabiziko solasaldi horretan, partaideek aukera izan zuten besteen komunikazio jarduna ezagutzeko eta euskarazko komunikazio publikoaren alderdiak eta ertzak, zein bere esparrutik eta jardun berezitik, agerian uzteko.

Bigarren saioan, komunikazio-praktikak eta onargarritasun soziala jorratu genituen. Hizkuntzaren onargarritasuna maila asko dituen gaia da; adibidez, onargarritasun gramatikala edo formala erregistroari dagokionez. Baina interesatzen zaiguna batez ere “hizkuntza hautaketa egokia” da, beti ere komunikazioaren helburuen neurrira. Horregatik, prentsaurrekoetan izaten diren arazoak izan genituen hizpide, berehalakoan agertu zen kazetari eta hedabideen aldetik zein den jarrera euskara erabiltzen denean. Hainbat partaidek nabarmendu zuten erakunde batzuei erraz onartzen zaiela erabilera hori, nolabait aurreikusten dela, haien izaera eta jarduna direla eta, euskaraz arituko direla, eta normalizatzen hartzen zaiela jokaera hura. Horrek badu bere alde txarra: batzuetan eragile horien berriak erabiltzen dituzte hedabideek euren euskara “kuota” betetzeko. Beste batzuek diote guztiz onartzen zaiela ele bietan egitea, alde horretatik, badirudi eragile bakoitzak irudi bat duela hizkuntza erabilerari dagokionez eta horren arabera jokatzeko dutela medioek. Eragilearen izaera edota jarduera-arloaz gain (batzuk oso lotuta euskalgintzari, edo izaera ofizialari), eragileak barrutik bultzatzen duen hizkuntza erabilerak badu zerikusirik horretan.

Batetik edo bestetik, hainbat ohitura dituzte hedabideek hizkuntzak erabiltzeko orduan, eta gehienek erdararen alde egiten dute. Prentsaurrekoetan ohitura horiek agerian daude: ele bietan egiten direnetan erdaraz egin ohi dira lehendabiziko adierazpenak eta euskararen txanda heltzen denean kazetari askok bukatutzat ematen dute saioa. Euskara osagarri legez agertzen da horretan.

Kasu batzuetan eragileek ohitura horiek gaintu nahi izan dituzte, euskaraz gehiago edo beste modu batera komunikatze aldera eta topo egin dituzte ohiturek ezarritako oztopoekin. Horiek gaintuzeko taktikei buruz hitz egin genuen. Oro har, aurreko prestakuntzari eta xede taldearen arabera jokatzeko jakiteari garrantzi berezia aitortu zieten. Alde bietatik,

Orokorrean bat egin zuten partaideek ideia horiekin: hedabideekiko komunikazioetan, eta zabalago esan edozein komunikaziotan, aldaketak prestatu, planifikatu, iragarri eta aurretik landu behar dira.

euskaraz komunikatzen denean sortzen diren edo sor daitezkeen ukoak, erreakzio negatiboak eta abar aurretiaz zaindu eta gaingitu beharko lirateke. Orokorrean bat egin zuten partaideek ideia horiekin: hedabideekiko komunikazioetan, eta zabalago esan edozein komunikaziotan, aldatetak prestatu, planifikatu, iragarri eta aurretik landu behar dira.

Eragile guztiek dute hizkuntzen erabilerari buruzko jokaera zehaztua. Hainbatek erabaki sendoetan eta plan zehatzetan ezarrita dute, beste batzuek, ordea, ohitura edo jokatzeko estiloari eusten diote. Hala ere, guztiek hartu behar izan dituzte hainbat eta hainbat erabaki euskarazko komunikazioari dagokionez, eta argi dute gaia konplexua eta zaila dela. Zailtasun handienetakoak, eta behin eta berriro errepikatu dena gure saioetan, medioen jarduna eta eragina da. Hedabideek “komunikazio ekosistema” bat eratzen dute eta han euskarak ez du leku handirik. Hala ere, joan diren urteetan egoera asko hobetu delako iritzia aski zabaldua da solaskideen artean. EITBk aldatu omen zuen ekosistema hori eta gutxienez euskaraz komunikatzearen normaltasuna irudikatze bidea zabaldu omen da. Oro har, nahikoa argi geratu zen espazio mediatikoan hedabide batzuek duten indarra ez dela, une honetan, euskaraz komunikatzeko abantaila.

Beste batzuetan bezala, saio honetan sumatu ahal izan zen jendaurreko komunikazioaren geruzak edo izariak aldatzen ari direla eta publikoak zatikatuta egoteaz gain haiengana heltzeko bideak aski ugaltzen ari direla. Partaide batzuek, esaterako, hedabideetatik aparte komunikatzen dute euren publikoekin eta aurreikus daitekeenez joera hau gero eta bizkorragoa izango da.

Saioren azken partean, onargarritasunaren gaia hedabideekiko harremanetatik kanpora eramanez eta jendaurreko beste komunikazio bideei buruz hitz egin genuen. Han agertu zen onargarritasun pasibo eta aktiboaren arteko aldea. Nolabait, errez onartzen da erabilera pasibo edo inerteak (kartelak edo seinaleak euskaraz jartzea, prentsa oharrean ele biak agertzea) baina nekezagoa da erabilera aktiboa (euskaraz ahozko komunikazioa egitea). Eta azken honetan omen daude jendaurrean euskaraz komunikatzeko erronkak.

Hirugarren saioan, komunikazio-praktiken berrikuntzari ekin genion, bide tradizionalak eta bide digitalak bereiziz eta azken horiek hobeto kudeatzeko eta erabiltzeko informazioa jasoz. Denek aitortzen dute ikaste garaian gaudela eta oraindik ere berrikuntza askorekin lehendabiziko hartu-emanetan daudela, baina horrez gain aurreikusten dutela

berrikuntza erritmoa ez dela geldituko. Baina hau dena baino interesgarriagoa izan zen arazoak azalduz arazoetan nola ari diren ikasten esplikatu zutenean.

Gehienek agertu zuten medio berrien aurrean sentitzen dutela kontrol galera, edo kontrol ezintasuna eta beti atzeratuta dabiltzala. Bai tamainak, bai teknologien zailtasunek, bai komunikatzeko edo harremanak izateko moduek oso konplexua egiten dute mundu hau. Eta, batez ere, oso zailtzen dute eragileek euren irudia eta komunikazio-estiloa kontrolatzea. Batzuek neurriak hartu dituzte dagoeneko: foroak ixtea, bazkide-gune bereziak zabaltzea... Euskarari dagokionez ere neurriak hartu dituzte euskara ito ez dadin, edo desager ez dadin zabalegiak diren eremuetan (Twitterren, esaterako), baina honetan ez zegoen argi zein den taktika hoberena: bereiztea eta euskarari kontu propioa ematea, kontu bakar batean euskara eta erdara erabiltzea, edo kontu bereziak izanda ere euskarari erdal kontuan lekurik ematea.

Aurreko saioan agertu zen gai bat gordinago agertu zitzaigun hemen: espazio publikoa ez da hedabide tradizionalen espazioa, eragile askok zuzenean komunikatzen dute euren publikoekin, gero eta zehatzago hautatzen dituzte publiko horiek eta gero eta bereziago sortzen dituzte haiei igorriko dizkieten mezuak. Hau da, kasu batzuetan hedabideak ez dira komunikatzeko lehendabiziko aukera eta halaber, publikoak zatikaturik egoteaz gain, bereziagoak dira. Publiko horiek dimentsio edo tamaina oso desberdinekoak dira, hainbat kasutan mundu zabaleko publikoak dira. Ondorioz, gero eta hizkuntza gehiago erabiltzen dituzte (hau bistakoa Athletic, Guggenheim eta besteren baten kasuan) eta hizkuntzak erabiltzeko irizpide eta politikak konplexuagoak dira.

Bi alderdi horiek (zuzeneko harremanak publikoekin eta izari edo geruza askotako publikoak) euskarazko komunikazioa nola kudeatu izan genuen hizpide, baina hau berebiziko garrantzia duen gaia da eta gogoetari eta esperientzia trukeari jarraipena eman beharko diegu.

2.3 Ahots anitzetik erronka komunetara

Proiektuaren zutabeetako bat diagnosi antzeko bat egitea zen. Diagnosi antzekoa diogu ez zelako zuzen-zuzenean diagnostiko oso bat, izan ere, proiektuaren oinarri epistemologikoekin bat eginez, ez genuen ez inor ebaluatu, ez inongo azterketa kuantitatiborik egin nahi. Diagnosi bat egin dugu beste zentzu batean: ahots askotako ezagutza partekatua sortu dugulako, hain zuzen. Hartarako, ekoizpen narratiboak deritzon teknika egokitu genuen (baina, bestetik, solasaldietan eta iritzi trukeetan

Diagnosi bat egin dugu beste zentzu batean: ahots askotako ezagutza partekatua sortu dugulako, hain zuzen. Hartarako, ekoizpen narratiboak deritzon teknika egokitu genuen.

azaldu ziren interpretazioak eta diagnosiak ere batu genituen lan honetara). Teknika hau Marcel Balaschek eta Marisela Montenegrok (Balasch eta Montenegro 2003; Pujol eta Montenegro, 2013) landutako hautu metodologikoa da, Donna Harawayren (1988) egoeran egoerako ezagutza kontzeptuaren ondorio epistemologikoen taxura.⁹ Metodo honek, gainera, Psikologia Diskurtsiboaren tradizioarekin bat egiten du (Parker, 2003; Edwards eta Potter, 1992), posizio partzialen arteko elkarrizketan jartzen baitu analisiaren indarra. Funtsean, metodoa narrazio batzuk egitean edo ekoiztean datza, alegia, gai jakin baten inguruan ikerlari eta ikertuen artean narrazioak ekoiztea da metodoaren funtsa. Emaidza berezko narrazioa da, aldaketarako tresna izan dadin egiten dena, alegia, ikerketarako berariaz egindako *ekoizpen* bat da. Horrela, egoeren interpretazio negoziatu eta sozialak bildu dira egoera horiek eraldatzeko tresna gisa erabiltzeko asmoz.

Metodoak eragileen parte aktiboa eskatzen du eta kasu guztietan ez dugu izan lankidetzat hori betetzeko modurik. Hortaz, ekoizpen narrazioak sinplifikatu behar izan genituen. Interpretazio ariketa gisa hartu genuen, hainbat ariketak osatutako sorta bat: elkarrizketa, testu idazketa, testu zuzenketa, eta parte arteko elkarreragina. Narrazioak modu horretara, prozesu baten azken produktuak baino ez dira. Aurretiaz joan dira partaideen gogoeta, elkarrizketako solasaldiak, testuen prestaketa eta abar. Horrela bi helburu bete genituen: batetik, partaide bakoitzak bere komunikazio jardunaz hausnarketa egin behar izan zuen eta hura nolakoa den azaldu behar izan zion kanpoko entzule bati, alegia ikerketa taldeko kideei; eta bestetik, hausnarketa hori denon artean izan ditugun solasaldi zabaletan egindako iritzi eta esperientzia trukeetan zeresana antolatuzeko, eta konpartitzeko modurik izan dute partaideek.

Hori dena, bere horretan, bada lorpen nabaria gure proiektuarentzat, hainbat helburu lortu ditugu: jardunaren zentzuaz gogoeta egitea, jarduna balioestea, jardunerako ezagutza handitzea, ikuspegi anitz elkartzea... Izan ere, jardunari buruzko ezagutza (jakintza praktikoa, alegia, erabilgarria, egoerara egokitua eta arizalearen ezaugarria bilakatua) kontakizunen bidez egituratzen eta partekatzen da. Baina horrez gain, eragileen komunikazio jardunak eta estiloak eta euskarazko komunikazio publikoan duten eskarmentua bildu ahal izan dugu, modu laburrean bada ere. Eta bilduma hori “ahots aniztetik erronka komunitaria” ibiltzeko gida modua erabili nahiko genuke. Esan bezala diagnostia ez da ikuspegi sintetikoa, edo dialektikoa (ikuspegi partikularrak gainditu litzakeena), eta ez dago itxita. Besterik gabe, parte hartzaileek euskaraz ere komunikatzeko duten egoera zein den jasotzen dugu, proiektu ho-

netan “lan eremua” eta “erronkak” hor agertzen direlako. Hitz gutxitan, haiek denak dira Praktika Komunitatearen gaiak eta beharrak, egin beharrekoak eta ebatzi beharrekoak. Haiek osatzen dute, beraz, praktika komun batean, euskarazko jendaurreko komunikazioan, duten komunitate “praktikoa”. Ikus ditzagun.

- *Erakunde traktoreen eginkizuna*: Ospe eta tamaina handiko erakundeek, erakunde publikoa izan edo ez, traktore gisa jokatzeko dute euskarazko komunikazio publikoan. Alegia, gai dira, bere jardunez, beste erakunde edo eragile batzuk euskarazko komunikazio publikoa egin dezaten erakartzeko. Lan handia egin dute horietako askok eta lan hori egiten jarraitu beharko dute. Traktore izaera ez zaie tamaina edo aitzindari gisa jokatu izanagatik etortzen, alderdi horiek baino garrantzitsuagoa da euskarazko komunikazioan engaiaturik egotea eta erreferentzialtasun publikoa izatea, biak uztarturik agertzen da traktore izaera. Nabarmena da erakunde horiek badituztela ele bitan jarduteko ohiturak, jokaera-estiloak, edo jardunbideak (gutxi edo asko garatuak, landuak, formalizatuak...). Eta normalean erakunde hauetan badute euren eginkizunaren eta erantzukizunaren kontzientzia garatua.
- *Euskara, bereizgarri positiboa* (marka bereizgarria): aurrekoari lotuta, jakitun dira erakunde traktoreek euskara bereizgarri positibo bihurtu ahal dutela erabileraren bitartez, batez ere erabilera hori zentzuzko markoetan aurkezten bada. Bereizgarritasun hori modu askotara ulertu ahal da: erakundearen bereizgarri positiboa izan daiteke publiko hurbil batzuentzat (publiko hura fidelizatzeko, edota publiko horren aurrean legitimotasuna lortzeko, edo publiko harekin identifikatzeko) edota bereizgarri horrekin aberastu ahal da erakundearen identitate korporatiboa (bereizgarritasuna lortu behar den lehiamerkatu batean, adibidez). Eragile batzuek argi dute euskara (eta euskaraz komunikatzea) euren izatearen arrazoi bat dela, edo izate horri indarra eta zentzua ematen dion faktore bat, edo beste batzuek bereizteko balio handiko diferentzia dela. Kasu guztietan, euskaraz komunikatzea, erreza ez izan arren, kapital gisa ikusi ahal da. Balio horiek erabili beharko lirarteke, agerian utziz eta balio berriak erantziz, euskarazko komunikazioa bera indartze, hedatze eta normaltze bidean.
- *Komunikazio eta informazio espazioaren agenteekin lan egin beharra dago*: Espazio horren ezaugarriak (taldeak, jarrera ideologikoak edo inertziatzeko joerak...) direla eta, premia da bitartekaritza eta elkarlana bultzatzea adostasun minimoak lortze aldera. Gune ko-

**Euskarazko
jardun
normaldua edo
ohikoa
onargarritasuna
handitzen duela
berez: zenbat eta
eragile gehiagok
euskaraz
komunikatu eta
horiek zenbat eta
gehiago egin,
orduan eta
onargarria da,
berez, inongo
diskurtso edo
marko berezirik
landu beharrik
gabe.**

munak eta adostutako jardunbideak antolatzea behar-beharrezkotzat jo dute. Kasu batzuetan gainera oso modu kontzientean ulertzen da hedabideekiko harremanak erruz aldatzen ari direla eta aldaketa horiek aukera izan daitezkeela euskarazko komunikazioa indartzeko. (bakoitzak bere medio propioak ditu eta helburuen arabera publikoak antola ditzake neurri batean). Aldaketa horiek, ondo erabiltzen jakinez gero, euskarazko komunikazioaren alde baliatu litezke. Baina, une honetan, oraindik oso garrantzitsua da ohiko hedabideekin (batez ere, zabalkunde handia dutenekin: telebistak, kazetak...) elkarlana bultzatzea gai honetan.

- *Xede talde bereziak eta euskara positiboki bereizteko neurriak*: aurrekoari estuki lotuta, eragileek badituzte kasu batzuetan euskaraz aritzeko xede talde bereziak. Hau da, badakite xede-talde edo sektore bati euskaraz egin dakiokela edo euskaraz egitea komeni dela. Hala-koetan euskarari lehentasuna ematea adostasun handiko iritzia da. Gainera, erabilera bereizi horren bidez euskarari balio positiboa ematen zaio.

- *Legitimitasun eta normalitate graduak*: Oro har, onartutzat eta normaldutzat jotzen da euskararen erabilera “inertea” (hau da, hizkuntza-paisaiako osagaiak, idazki eta inprimakiak, e.a.). Badira, hala ere, salbuespenak: mugak zonaldeen arabera, edota kasu berezietan. Maiz, arazoak onargarritasun eta legitimitasun mailari lotuta daude. Hala ere, erakundeek legitimitasunaren indargarriak erabiltzen dituzte: lege markoaren babesa, ele aniztasuna, zerbitzuaren kalitatea, e.a. Honetan ere, eragile batzuek modu kontzientean egiten duten bitartean, euren asmo eta helburuak betetze aldera, beste batzuek jardunarekin batera ikasitako errekurtsioak, erantzunak, ego-kitze-jokaerak eta abar erabiltzen dituzte. Esan beharra dago jarduna bera ere onargarritasun iturri gisa ulertzen dela, alegia, euskarazko jardun normaldua edo ohikoa onargarritasuna handitzen duela berez: zenbat eta eragile gehiagok euskaraz komunikatu eta horiek zenbat eta gehiago egin, orduan eta onargarria da, berez, inongo diskurtso edo marko berezirik landu beharrik gabe (alde horretatik, eragile askok sentitzen dute arazo berezirik ez dutela euskaraz komunikatzeko, euren jardun nagusia euskarari lotuta egonik, normal hartzen dutelako publikoek eta hedabideek haiek normal egiten dutena).

- *Elebitasun sistematikoaren gutxieneko babesa*: aipatu diren onargarritasuna lortzeko bideetan azpimarratzekoa da maiz ele bitan aritzea legea betetze aldera egin beharreko jarduna delako argudioa (batez ere, erakunde publiko batek informazioa zabaltzeari dago-kionez). Batzuetan, beraz, legea betetze hark sistema gisa euskararen

alde jokatzen du, batik bat, testuinguru erdaldunetan. Hori berariaz eta sistematikoki legea betetzea suposatzen du eta hartarako (erantzukizun) kontzientzia lantzea.

- *Erakundearen euskaraz komunikatzeko ahalmena.* Beste maila batera joanda, erakunde edo eragile bakoitzak bere baliabideak ondo eza-gutu eta ondo erabili behar ditu eta horien garapena estrategikoki diseinatu eta kudeatu beharko ditu. Nekez hasiko da euskaraz komunikatzen helburu horretarako prestatu ez den erakundea, baina aldi berean, komunikazio hori praktikan jarriz baino ez du hartuko normaltasun mailarik. Halako egoeran daude erakunde batzuk. Batetik helburu gisa planteatu dute, edo planteatzen ari zaie, baina bestetik, egunean-egunean euskaraz komunikatu “beharra” dute (elebitasunari eusteko, adibidez). Kasu haietan erakunde gehienek mailaka doaz betetzen eskakizun horiek: hasieran errazena omen den komunikazio inertetik hasita eta handik komunikazio era aktiboago eta elkarrekintza handiagokoetara joz. Testuinguru horretan agertu da eledunen edo ordezkarien gaitasunak trebatu beharra. Sostengua eman behar zaie, eta berariaz lidergo partekatuaeren kontzientzia landu behar da, alegia, pertsonen gogotik abiatuta, erakundearen estilora jo beharko da.

- *Euskaraz komunikatzeko jardunbide zehatzen esperientziak.* Eragile gehienek badute, esan bezala, esperientzia handia euskaraz komunikatzen eta jardute hartatik sortu den egiten jakiteari begira hainbat jardunbide bereziak ere bai:

- *Elkarlaguntzako taldeak eta sareak:* Erakundearen, barne komunikazioari begira, euskara-sare eta taldeak eraginkorrek dira. Boluntarismo eta instituzionalizatutako praktiken artean mugitzen dira eskuarki. Boluntarismoak betetzen ditu maiz ohiko eta arauzko egitura zein jokaeretan hartu ez diren erabakiak, baina aldi berean erakundearen baitan ontzat ematen direnak. Hala ere, erabaki horiek instituzionalizatzeko urrats gisa har daiteke, aurre-prestakuntza gisa hain zuzen. Denboran luzatzen ez bada, onuragarria izan daiteke erakundearen gaitasunak agerian jartzen direlako eta gainera gaitasunen kudeaketa estrategikoan ere eragin positiboa izan dezakete. Dena den, talde eta sare horiek ezin dira soilik kultura edo egitura ez-formaletan geratu.

- *Euskarazko “ibilbideak”:* Lan prozesua hasieratik euskaraz egitea litzateke hoberena, komunikatuko dena euskaraz sortua dela ziurtatuz (komunikazioan, barrutik kanpora ibilbide osoa euskaraz). Logikoa denez, lana euskaraz eginez gero komunikazioa ere etenik gabe joango da euskaraz. Erakunde oso batek euskaraz

ezin badu egin bere jardun osoa, tarteko konponbide bat euskaraz egiten diren proiektu, lan, zerbitzu, arloak antolatzea izan liteke. Baina arazoak dituzte erakunde gehienek halako ibilbideak antolatzeko, bai erakundearen eta jardunaren antolamenduagatik, bai langileen gaitasunen aldetik ere.

– *Taktika bildumak*: Erakunde gehienek badituzte hainbat jokaera edo trikimailu euskara erabiltzeko, erosoago erabiltzeko edo besterik gabe ikusgarriagoa egiteko. Askotan praktika hutsaren ondorio dira eta ez dira formalizatu edo arautu. Oso kontu sinpleak izan daitezke; esaterako, nola idatzi mezuak ele bitan edo nola egin aurkezpen bat euskaraz publikoa guztiz euskalduna ez denean. Lan saioretan horietako asko azaldu dira eta kasu batzuetan horiek nola hobetu izan dugu hizpide.

– *Ekitaldi publikoak* aurretiaz prestatzea (eta ohitura bihurtzea). Aurrekoaren ildotik, komeni da, oro har, jendaurreko komunikazioa ondo lantzea eta are gehiago euskara erabili nahi denean. Beharrezkoa da prentsaurrekoak, jendaurreko ekitaldiak, eta abar, ondo prestatu aurretik, informazioa eskura jarri hartzailearen erara egokituta (eta hala egingo dela jakinarazi eta iragarri). Prentsaurrekoak oso ardura komuna izan da, oraindik ere (prentsa-oharrekin batera) hedabideekin harremanak izateko erarik arruntena direlako. Baina, halako ekitaldi publikoetan aurreko prestakuntza funtsezkotzat jo da.

Aurrekoari beste gogoeta bat erantsi nahi diogu, gure ustez nahikoa sintomatikoa dena. Orokorrean aurreikusi genuen partaideen profila gehienetan bete da. Hala gurekin batera izan ditugu erakunde publikoetako komunikazio-arduradunak, enpresa pribatu eta elkarte pribatuetako komunikazio-arduradunak, nola arlo sozialeko elkarteetako komunikazio-arduradunak zein ordezkari edota eledun aritzen direnak. Baina nabarmendu nahi dugu kasu batzuetan komunikazioko arlokoak izan gabe, euskara arlokoak izan direla erakundeen ordezkariak, euskara teknikiak esaterako. Horrek, berez, ez dio kalterik egiten egitasmoari baina uste dugu egoera baten sintoma dela: euskara komunikazio jardunetan txertaturik egon beharrean, arlo berezia da erakunde askotan. Erakunde bakoitzak aztertu beharko du hori ona edo txarra den bere helburuen argitara, baina euskarazko komunikazio publikoaren ikuspuntutik uste dugu eraginkorragoa dela ikuspegi integratua eta transbertsala.

Azkenik, kontuan hartu behar dugu aurreko guztiak ez direla arazo edo konpondu beharreko egoerak. Baina argi dago erronka gisa har daitezkeela eta ondorioz, aurrera jarraitzeko ildo komunak azaltzen

zaizkigula. Sor daitezkeen guztiei ezin die Praktika Komunitateak aurre egin, ezin dira izan Praktika Komunitatearen hurrengo jardute-ildoak. Baina horietako batzuei ekin beharko die.

3. ZER LORTU DUGU? PROIEKTUAREN LEHEN FASEAREN BALORAZIOA

I Proiektu honek azken helburu nagusi bat zuen eta du: euskarazko komunikazio publikoan aritzen diren eragileen Praktika Komunitatea osatzea. Egia esan, helburu hau bitarteko gisa aurkeztu da, uste baitugu Praktika Komunitate horrek lagunduko diola euskarazko komunikazio horri: lagungarria izan daiteke euskaraz egiten diren jendaurreko komunikazio jardunak hobetzen, errazagoak bihurtzen, eskuragarriagoak eta erosoagoak egiten edonorentzat. Lagungarri izan daiteke, halaber, jardun horiek hedatzen eta normaltzen. Hori da azkeneko helburua, Praktika Komunitatea hartarako bitarteko edo bitartekaria delarik.

Ez dugu, beraz, zuzeneko eragin bide bat hautatu. Zeharka eta urraska doan ibilbide bat baizik. Proiektuaren oinarria praktikak indartzeko eta zabaltzeko burubide bat da: praktika jakin bat hedatu nahi bada, hura erakargarri eta eroso bihurtu behar da, testuinguru hurbilean agerikoa eta ikusgarria izan behar du eta edonoren eskura egon behar du. Praktiken erakargarritasuna oso lotuta dago praktika arrunt, eroso eta norberaren helburuentzako onuragarria izateari. Hori dena agerikoa izan behar da, edozein moda fenomenotan hedatze bidean denaren balio erantsia bereizgarritasuna den bezala, hedatzen hasita eta erruz zabal dadin eskura eta eroso topatu beharko dugu nola atzeman hori.

Proiektuaren gaia praktika da, ez praktikari buruzko jarrerak edo diskurtsoak. Baina argi dugu praktikari buruz gogoeta egitean edota hura nola hobetu eta erraztu daitekeen eztabaidatzean, praktikaren zentzu eta balio sozialak ere jorratzen direla. Hori, dena den, bigarren maila batean gera daiteke Praktika Komunitateko partaideek euskaraz errazago eta erosoago komunikatuz eta hori hala dela agerraraziz aldatuko baitituzte eraginkorrago praktikaren zentzua eta balioa. Horrenbestez, ez da proiektuaren helburua zuzenean inor ezertaz konbentzitzea, ezta propagandaren bidez iritziak edo diskurtsoak aldatzea. Sinpleago esan, ez gaude, ez kontzientziatzeko, ezta sentsibilizatzeko, egitasmo batean. Horiek gertatzen badira zeharka eta azpi-eragin gisa izango da.

Egin egiten den praktika bat hobetzen eta hedatzen lagundu nahiko luke proiektuak. Izan ere, euskarazko komunikazioan nahikoa motiba-

Egin egiten den praktika bat hobetzen eta hedatzen lagundu nahiko luke proiektuak. Izan ere, euskarazko komunikazioan nahikoa motibaturik dauden eragile asko ditugu inguruan, edo euskaraz zerbait komunikatzeko prest daudenak.

turik dauden eragile asko ditugu inguruan, edo euskaraz zerbait komunikatzeko prest daudenak. Horiek badute gainera nahikoa jakintza eta esperientzia komunikazio hori egiten. Horregatik pentsatu genuen Praktika Komunitatea metodo ona izan zitekeela, izan daitekeela, jakintza eta esperientzia horiek partekatuz eta horrela ere euskarazko komunikazio publikoa bera aldatuz: testuingurua aldatuko baitugu neurri batean (partaideena lehenbizikoz) eta lidergo berri bat osatuko dugulako (ez zuzendaritza-lidergo bat, baizik eta eragileen eta praktikaren testuingurua aldatuz eragiten duen lidergo lauso eta ez-zuzenekoa).

Alde horretatik, Komunitatean parte hartu dutenek elkarri aldarazi diote testuingurua. Neurri apalean bada ere izan ditugun saio eta jardunen bidez testuinguru berri bat sortu dugu (sortu diote elkarri), eta hura ere motibagarria da hainbat arrazoiengatik:

- besteen esperientziak ezagutzeak motibatzen duelako,
- norberarenak balioesteko aukera ematen duelako,
- praktika hartan aritzen diren eragileek elkar ezagutuz alderaketa eta balioespen sozialak bultzatzen direlako,
- elkarrengandik ikastea eta harremanak egitea lagungarria delako,
- aurrerako jardunetan bestela ekiteko abiapuntu edo marko bat ezartzen duelako.

Areago ere, hainbat kasutan aurreko efektu horiei erantsi beharko genieke partaidearen testuingurua aldatzen dela euskarazko komunikazio publikoan engaiaturik dagoela ohartarazten delako, eta horretan, ahalgin komun batean, hainbat eta hainbat eragile ari direlako kontzientzia hartzen duelako. Berebiziko garrantzia dute efektu horiek, antzemateko eta kuantifikatzeko zailak izan arren.

Bistan da, hori ez da partaide guztien kasua: eragile batzuek traktore eginkizuna dute jendaurreko euskarazko komunikazioan. Baina uste dugu hainbatentzat indar traktore hori proiektuaren baitan izan dela eraginkorra, alegia, eragile batzuek traktore gisa ikusi ahal izan dituzte beste batzuk. Bide horretatik jarraitu behar du Komunitateak: traktore ari direnen lan aitzindaria testuinguru lidergo bilakatuz, ahal den neurrian.

Aipatu barne eragin horiek dira komunitatean partaide diren eragileek jasoko dituzten lehenengoak. Aurrerago Praktika Komunitatea zabaltzen den neurrian eta eragileen praktiketan ondorio positiboak dituen neurrian, eragin horiek komunitatetik kanpora, eremu publikora, hedatu daitezke/litezke.

Lehendabiziko fasea proiektuaren abiatzea izan dela esan daiteke eta bertan lortu dugun emaitza nagusia eta esanguratsuena egindako ibilbidea bera izan da. Hau da, hainbat eragile bildu eta jarduera zenbaiten bidez, elkarrekin edo zein bere aldetik euskarazko jendaurreko komunikazioari buruzko gogoetan eta solasean aritu dira fase honetako partaideak. Hala gauzak, emaitzak edo lorpenak ez dira prozesutik edo, sinpleago esan, egindakoetatik aparte dagoen produkturen bat edo produktu sorta bat. Praktika-komunitatearen filosofiari jarraituz, jardunean bertan sortzen den jakintza eta berrikuntzaren garrantzia nabarmendu eta balioetsi nahi dugu. Hori dena Praktika Komunitate batek izan behar dituen funtsezko hiru ezaugarriak lortze aldera egin dugu: *eginkizun komuna* (praktika komun nagusia), *elkarrenganako engaiamendua* (elkarri laguntzeko konpromisoa eta elkarrengandik ikasteko nahia), *errepertorio partekatua* (mota orotako baliabideak: elkar ulertzeko diskurtsoa, konponbide praktikoak, lanabesak, eta abar).

Hiru ezaugarri horietan kontuan hartzekoak bete ditugula esan genezake:

- *Eginkizun komunari* begira ekimen bera izan da gure ardatza. Saiotan interes eta jakingai komunak, arazo eta erronka komunak edo antzekoak agertu dira. Ez da eginkizun bakar bat esku artean duguna, baina bai jardute eremu zabal bat.
- *Elkarrenganako engaiamendua*: fase honetan parte hartzeko lasaitasuna, erosotasuna, konfiantza eta elkarrekikotasuna bultzatu ditugu eta giro positibo eta emankorra lortu dugula esan dezakegu. Horrek lagundu digu jakiten hurrengoetan zein nolako parte hartze mailak, estiloak, ardurak, eta abar, proposatu ahal diren.
- *Errepertorio partekatua*: bai lan saioetako eztabaidetan, bai elkarriketetan, landu dugu. Ez da proiektuan diagnostiko bakarria adostea, baina ikerlariok ondorioztatu ditugu hainbat iritzi eta ardura komun. Eragileak bai izaeraz, bai jardueraz oso diferenteak izan arren, badira adostasunezko gaiak euskarazko komunikazio publikoari buruz.

Dena den, zehaztapen batzuk egin behar ditugu. Saioek eta jarduerak proba izaera izan dute eta alde horretatik hainbat ezaugarri eta helburu zuzendu edo egokitu behar izan ditugu probaldi horietan ikasitakoari jarraituz. Esaterako, partaide jardun duten eragileei hasierako proiektuan aurreikusten zen lan karga arindu behar izan dugu; edota Praktika Komunitatearen egitura sinplifikatu, eta jarduerak ere neurriratu dira.

Lehendabiziko fasea proiektuaren abiatzea izan dela esan daiteke eta bertan lortu dugun emaitza nagusia eta esanguratsuena egindako ibilbidea bera izan da.

Helburu nagusietara heltzeko bidean gabiltzala eta, bigarren fasearen tarteko helburuak zehaztu ditugu: praktika komunitatea indartzea kide berriak erakarriz, sarea zabalduz, eta garapen ildoak, zerbitzuak eta egitura zein edukiak antolatuz.

Praktika komunitatea metodoa den aldetik ere baloratu behar dugu. Horretarako Wenger eta lankideek identifikatutako urratsak erabili ahal ditugu. Gure proiektuari dagozkion zehaztapenak eginez, honako hauek dira:

- *Gaiak (beharrak) identifikatzea.* Oso desberdina da praktika komunitate bat sortzea praktika zehatza denean, lanpostu eta lan jarduera jakin batena denean, edo lan erakunde berean egiten denean edo gure kasuan bezala, praktika-arlo zabal bateko eragileak batzen direnean. Izan ere, praktika komunitate hau sare tankera baino ezin da izan: ez da praktika zehatz bat, ez da lan jarduera jakin bat eta gainera erakunde, eragile edota elkarte zenbait batu ditugu. Hala ere, diagnostiko moduan landu ditugun testuetan eta izan ditugun eztabaida saioetan gaiak eta beharrak ondotoxo identifikatu dira: bada euskarazko komunikazio publikoan aritzen direnen beharrak eta asmoak identifikatzea eta haietan elkarri laguntzea.
- *Sustatzailea* edo animatzaileari dagokionez, argi zegoen fase honetan sustatzailearen betebeharra talde eragilearen ardura izango zela (alegia, UPV/EHUko ikerlari eta Klusterreko langileen artean osatutako taldea). Hala ere, gure asmoa partaideen arteko elkarrekintza autonomoa sustatzea eta eragitea zen. Ez dugu lortu, besteak beste, astirik eta modurik izan ez dugulako. Baina aurrera begira oso kontuan hartzeko erronka da hau. Praktika komunitate guztiek behar dute dinamizatzaile edo *community manager* delakoaren bat, baina partaideek ere zuzeneko elkarrekintza izan behar dute.
- *Parte-hartze mailak antolatzea.* Fase honetan, nukleoa sortu eta trinkotu dugu, baina honek jarraipena behar du, eta proiektuaren baitan, ez baitu hartu funtzionamendu autonomorik. Egia esan, ez da izan fase honetako helburua. Eta ez dugu aurreikusten hori berez sor daitekeenik. Hala ere, nukleoaren dinamikak bultzatzeko, parte hartzeak erakargarria eta praktikoa behar duenez, hara bideratu nahiko genituzke hemendik aurrerako ahaleginak.

4. HURRENGO / ORAINGO FASEARI BEGIRA

I
2017an praktika komunitatearen fase publikoari ekin diogu. Hartara, aurkezpen publikoa egin da¹⁰ eta webgunea zabaldu dugu: <http://jendaurrean.eus/eu>. Helburu nagusietara heltzeko bidean gabiltzala eta, bigarren fasearen tarteko helburuak zehaztu ditugu: *praktika komunitatea indartzea kide berriak erakarriz, sarea zabalduz, eta garapen ildoak, zerbitzuak eta egitura zein edukiak antolatuz.*

Orain arteko ekite-ildo edo faseko lan saioetan (prestakuntza saioak, solasaldiak, elkarrizketak, testuen prestaketa adostua) ageri diren iritzi eta balorazioetan oinarriturik hainbat lan-ildo aurreikusi ahal dira, baina proiektuaren helburu nagusia lan-ildo horien lan-sarea edo komunitatea bera dela ahaztu barik. Oro har, jarraipenean landu beharrekoak izango dira orain arte egindakoari zentzu borobila emango diotenak:

- Komunitatea euskarazko komunikazioan oso engaiaturik diren taldeez gain, bestelako eragileak erakarri beharko genituzke;
- Diagnosirako dialogoa etengabekoa egin: argazki bat izan beharrean, prozesu gisa ulertu eta horretan oinarritu hurrengo ekimenak;
- Praktika komunitateak autonomiaz jardun dezan lan egin behar da (partaideen arteko elkarrekintza bultzatuz);
- Proiektu berriei (eta eragileen proiektuei) leku egin eta haiek sustatu eta bermatu.

Gogora dezagun, *Jendaurrean Erabili* proiektua erakundeen arteko elkar harremanak sustatzeaz arduratzen den heinean, proiektua arrakastatsua izan dadin ezinbestekoa dela kide diren erakundeek jarrera aktibo eta parte hartzailea edukitzea. *Hartu-eman*a sustatu nahi du proiektuak beraz. Batetik *hartu*, erakundeek euskarazko jendaurreko komunikazioa errazago burutzeko baliabideak eskuratuko baitituzte. Eta bestetik *eman*, erakundeek haien bizipenak eta hausnarketak partekatuko dituzte, jarrerara eta parte hartze aktibo bat edukiz egitasmoa aberastu eta bizirik mantendu dadin.

Bestalde, praktika komunitatearen egitura bera definitzen hasiak gara, ezinbestekoa baita, proiektuaren hasierako proposamenetan esaten zen moduan, praktika komunitatearen irudi eta eragin publikoa lantzea eta indartzea hainbat geruzaren bitartez: erdigune aktiboa eta elkarrekintzan diharduena, inguruko geruza hurbila, hura ere zuzeneko eragin sarean, eta periferia zabal bat, gutxienez Praktika Komunitatearen berri izan beharko lukeena.¹¹

Labur esan, Praktika Komunitatearen Talde Nuklearra osatu eta esperientzia pilotu bat izan dugu urte batez. Hastapeneko fasean talde txiki bat baino ez dugu batu, baina aldi berean askotariko talde bat osatu denez elkarrekintza berezia izan da. Esperientzia horretan ere hainbat lorpen izan ditugu: elkarrizketa eta eztabaida saioetan askotariko erakundeak jartzea jendaurreko komunikazioan hizkuntza hautuek betetzen duten rolaren eta euskararen sustapenaren gainean gogoeta egiten eta elkar ezagutzen. Horrela, ezagutza sortzeko eta kudeatzeko metodo bat

(praktika-komunitatea) probatu dugu berez zaila zen eremu batean (jendaurreko komunikazioko askotariko eragileak). Zentzu horretan, Praktika komunitatea, jakintza eta esperientzia partekatzeke tresna den aldetik, zeharkako bide bat da euskarazko komunikazio publikoa suspertze eta normaltze aldera. Esan bezala, neurri apal batean komunikazio testuingurua aldatu dugu: dagoeneko hainbat eragileri aldatu zaio komunitatean parte hartu dutenez gero. Aldaketa horren intentsitatea eta hedapena hemendik aurrerako ahaleginen eta baliabideen araberatik ahistu edo handituko dugu. Praktika komunitatearen ahaleginak, beraz, lidergo sozialari lotuak dira: batetik elkarrekintzetan sortzen den lidergo partekatu eta sozialari; bestetik eragile kolektibo batek jardute hutsez bere jardun arloan sor dezakeen eraldaketari. Lidergo berri bat osatzeko aukera lantzen ari gara, ez zuzendaritza-lidergo bat, baizik eta eragileen eta praktikaren testuingurua aldatuz eragiten duen lidergo lauso eta ez-zuzeneko. Hori dena, jakina, gure indarren neurrian.

Orain arte egindakoetan, nabarmendu ditugu zuzen-zuzenean partaideen lanak eta euren arteko harremanak. Bide horretatik jarraitu behar du komunitateak, traktore ari direnen lan aitzindaria testuinguru lidergo bilakatuz, ahal den neurrian, besteentzako, kide, lagun edo inguruko interesatua, testuinguruko lidergo funtzioa hedatzen eta azken finean, euskarazko komunikazio publikoa egiteko eredu normalduak, erosoak eta errazak eskaintzen. Uste dugu, horrenbestez, proiektuak potentzialtasun handia duela: jarraipena ziurtatuz gero, euskaraz jendaurrean erabiltzea bera ere eralda genezake, ekarpen apala eta partziala eginez jakina. ●

OHARRAK

1. Hiru izan ziren EranLanen edizioak: EraLan1 [2006-2008], EraLan2 [2008-2010], EraLan3 [2011-2013]. Eta helburu komun bat izan zuten: "hizkuntza normalizaziorako planak onartuta dituzten lan munduko erakundeetan euskararen erabileran eragiten duten aldagaiak identifikatzea, eta horietan positiboki eragiteko metodologiak sortu eta inplementatzea." Ikus: <http://www.soziolinguistika.org/eralan>
2. UPV/EHUko Gizarte Psikologia Saileko Irakaslea eta doktoregaia, hurrenez hurren. Biak Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko INNOLAB Gizarte Aldaketa, Berrikuntza eta Komplexutasuna, Euskal Unibertsitate Sistemako Ikerketa Taldeko kideak (A maila. IT650-13).
3. Esan beharra dago *EraLan* egitasmoaren lanetan praktika-komunitatea esplizituki garatu ez bazen ere, ideia presente egon zela *Eralan3* proiektuan, eta hein handian halako tanke-rakoak izan zirela lan horietan aritu ziren taldeak eta zehatzago *Garapen Taldeak*. Alde horretatik ere, jarraipen bat ematen zitzaizen aurreko ekimenei.
4. Hainbat ezaugarri hartu ziren kontuan Talde Nuklear horretako kideak bilatzeko, hala nola, erreferentzialtasuna edo sare zabal bateko erdigune izatea, sektorea edo jarduera arloa, iazera publikoa eta pribatua, jardueraren lurraldea... Bestalde, proiektua zuzentzea, dinamizatzea eta kudeatzea Soziolinguistika Klusterreko eta EHUko hainbat partaidek osatutako talde eragile baten lana izan da: EHUren aldetik, Eduardo Apodaka eta Idurre Eskisabel aritu dira, Klusterren aldetik, Pablo Suberbiola eta Uxoa Anduaga.

5. Ikusten denez, praktika-komunitatea ekintza bidezko ikaskuntzatik hurbil dago eta halaber *action learning* metodoetan proposatzen diren ataza- eta ikaskuntza-taldeetatik (Revans, 1980). Talde horiek komunitate handiago batean integratzen dira praktika-komunitateen ereduari.

6. Praktika Komunitateen Teoriaren ideiak eta praktikak *on-line* inguruetara itzuli dira hainbat modutara, adibidez: praktika-komunitate birtualak, praktika-komunitate elektronikokoak edota *e-learning* praktika-komunitateak. Alabaina, *on-line* eta *off-line* eta maila eta zabalkuntza ezberdineko ingurunez eta geruzaz osatu ahal dira praktika-sareak. Horrela, *komunitate-geruzak* kontzeptua proposatu da mikro-, meso- eta makro-komunitate osagarriak deskribatzeko (Triggs eta John, 2004).

7. Euskarazko komunikazio publikoan, hedabideek erdiguneko eginkizuna dute. Askotan, besteek euren jardunean euskara (ere) erabili nahi dutenean aurrez aurre dituzten "solaskideak" ez dira zuzen-zuzenean xede-solaskideak, hedabideak baizik. Hala, hedabideak *artekari* gisa agertzen badira, maiz mezua zehaztean eta igortzean zinezko *eragileak* dira.

8. Aditu eta gai horiek, honakoak izan ziren: Bea Zabalondok *Komunikazio ereduak eta komunikazio-estrategiak* gaia landu zuen, Eduardo Apodakak *Komunikazio praktikak eta onargarritasun soziala*, Patxi Azpillagak *Jendurreko komunikazioa gaur egun: bide berriak eta ohikoak*, Jordi Moralesek *Sare sozialak jendurreko komunikazioan, euskararen erabilera aztertzeo erreminta*. Guztiei eskertu nahi diegu egindako ekarpena.

9. Harawayren ustez ezagutza egintza soziala da, ez da ez behatzaile neutro eta objektibo batek errealtateari antzeman dion informazioa, ezta norberaren baitatik sortzen den mundu-ikuskerara subjektibo eta partikularra. Aitzitik, ezagutza soziala da, askoren artekoa, partziala, negoziatu beharrekoa eta elkarrekintzazko posizioetan sortua eta landua. Horrela, bada, metodologia objektibistak (ezagutza unibertsala lortzen omen dutenak) eta diskurtsiboak (ezagutza erlatiboa eta subjektibora mugatzen omen direnak) gainditu eta objektibismo eta erlatibismo hutsetatik alde egiteko proposamena egiten digu metodologia honek.

10. Hedabideetan, eskura:

http://www.berria.eus/paperekoa/1736/008/001/2016-10-01/erakundeen_euskarazko_komunikazioa_laguntzeko_sarea_aurkeztu_dute.htm

<http://www.eitb.eus/eu/albistek/gizartea/oso/4424440/jendurrean-erabilik-erakundeen-euskarazko-komunikazioa-lagunduko-du/>

http://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gaur8/editions/gaur8_2016-10-15-07-00/hemeroteca_articles/jendurreko-euskararen-erabilera-areagotu-eta-hobetu-nahi-dutenen-sarea

11. Bi partaidetza mota zabaldu dira: kide eta lagun. Proiektuaren lagun direnek proiektuari loturiko berriak eta zenbait material eskuratzeko aukera izango dute webguneko intranetean. Proiektuko kide direnek, aldiz, egitasmoari loturiko material guztiak izango dituzte eskuragarri eta proiektuari dagozkion gaien inguruan eztabaidatzeko eta proposamenak helarazteko tartea edukiko dute.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Balash, M. & Montenegro, M. (2003): Una propuesta metodológica desde la epistemología de los conocimientos situados: Las producciones narrativas. *Encuentros en Psicología Social*, 1(3), 44-48.

Brown, J. S. & Duguid, P. (2000): *The Social Life of Information*. Harvard Business School Press.

Brown, J. S. & Duguid, P. (1991): Organizational learning and Communities of Practice: toward a unified view of working, learning and innovation. *Organization Science*, 2, 1, 40-57.

Castells, M. (2010): Communal Heavens: Identity and Meaning in the Network Society. *The Power of Identity*, 5-70, 2nd Edition. Oxford, Wiley-Blackwell.

- Edwards, D. & Potter, J. (1992): *Discursive Psychology*. London, Sage.
- Fals Borda, O. & Brandao, C. (1986): *Investigación participativa*. Montevideo, Instituto del Hombre.
- Goikoetxea, N., Marko I., Alvarez M., Gutierrez R., Miner I., Suberbiola P., Ugalde I. (2015). *EraLan3: Euskararen erabilera lan munduan*. Soziolinguistika Klusterra.
- Haraway, D. (1988): Situated Knowledges: The Science Question in Feminism and the Privilege of Partial Perspective. *Feminist Studies*, 14, 3, 575–599.
- Lave, J. & Wenger, E. (1991): *Situated learning: legitimate peripheral participation*. Cambridge, University Press.
- Moreno & Espadas (2002): *Diccionario crítico de ciencias sociales, Terminología Científico Social*. Madrid, UCM.
- Parker, I. (2003): *Critical Discursive Psychology*. Publisher Palgrave Macmillan.
- Pujol, J. & Montenegro, M. (2013). Producciones narrativas: una propuesta teórico-práctica para la investigación narrativa. M. Rodigou & H. L. Paulín (arg.), *Coloquios de investigación cualitativa: desafíos en la investigación como relación social*, 15-42. Córdoba, Socialex.
- Villasante, T. R. (2006): *Desbordes Creativos. Estilos y estrategias para la transformación social*. Madrid, La Catarata.
- Villasante, T. R.; Montañes, M. & Martí, J. M. (koord) (2002): *La investigación social participativa*. V. 1. Construyendo ciudadanía. Barcelona, El Viejo Topo.
- Wenger, E. & Snyder, W. (2000): Communities of Practice: the new organizational frontier. *Harvard Business Review*, 139-145.
- Wenger, E. (1998a): *Communities of Practice: learning, meaning and identity*. Cambridge, University Press.
- Wenger, E. (1998b): Communities of Practice: learning as a social system. *Systems Thinker* (eskuragai: <http://www.co-i-l.com/coil/knowledge-garden/cop/lss.shtml>).
- Wenger, E.; McDermott, R. & Snyder, W. (2002): *Cultivating Communities of Practice*. Harvard, Business School Press.